

AUKERA

OINARRIAK

(H)emen Elkarteak bultzatutako eta Zineuskadiren laguntza duen emakumeek sortutako film laburrentzako mentoretza programa bat da AUKERA.

AURKEZTEKO BALDINTZAK

Zinemagintzarekin edo ikus-entzunezkoekin lotutako ikasketak egin dituzten edo egiten ari diren 18 eta 35 urte bitarteko emakumeek parte hartu ahal izango dute AUKERAn.

Gutxienez bi emakumek, eta gehienez bost emakumek osatutako taldeak aurkeztu beharko dira; eta zuzendari, gidoilari eta ekoizle funtzioak ordezkaturik egongo dira.

Gehienez hiru film labur estreinatuak izan dezakete taldeko kide bakoitzak, zirkuitu komertzialean zein jaialdi zirkuituan.

Talde bakoitzak kideetako bat izendatuko du ordezkari. Ordezkariak laguntza eskatu, beharrezko izapideak egin, eta AUKERAREN koordinatzailearekin harremanetan jarriko da taldearen izenean.

Talde bakoitzak proiektu bat baino gehiago aurkeztu ahal izango du, baina taldeko kideak beti berdinak izan beharko dira. Inork ezingo du talde batean baino gehiagotan parte hartu.

AUKERA programarako hautatua izanak ez du ukatzen proiektu berdinerako beste laguntza batzuk lortzea.

PROIEKTUEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Proiektuaren ideia originala izango da. Taldearen ordezkariak Jabetza Intelektualaren ziurtagiria aurkeztu beharko du, gutxienez taldeko kide bat gidoiaren jabe dela egiaztatzen duena.

Proiektuek gidoiaren idazketa fasean egon behar dute.

Mentoretza jasoko duten bost film laburrek, ekoitzi ondoren, AUKERA programaren, (H)emen-en eta Zineuskadiren logoak txertatu beharko dituzte kredituetan.

AUKERA

OINARRIAK

HAUTAKETA PROZESUA

Mentoretza saioetan parte hartuko duten taldeen hautaketa batzordea honako hauek osatuko dute:

- AUKERA programako koordinatzaile bat
- Gidoilari bat
- Zuzendari bat
- Ekoizpen-etxe bateko kidea

Aurkeztutako proiektuen artean, epaimahaiak gehienez 30 minutuko iraupena duten fikzio, dokumental edo animaziozko bost film labur proiektu aukeratu dituzte, eta horiek hartuko dute parte ondorengo mentoretza saioetan. Mentoretza saioak, ekainean, uztailan eta irailean burutuko dira. Horietan parte hartzea derrigorrezkoa izango da hautatutako taldeen kideentzat.

- Gidoi mentoretza saioak
- Zuzendaritza mentoretza saioak
- Produkzio mentoretza saioak
- Genero ikuspegidun coaching saioak

Mentoretza saioak amaitu ondoren, bi proiektu finalistak hautaiko dira eta horiek film laburra ekoizteko 3.000 euroko AUKERA SARIA jasoko dute ZINEBI 63 jaialdiko itxiera galan.

ESKABIDEAK

Eskabideak aurkezteko epea:

2021ko martxoaren 1etik apirilaren 26ra, 00:00ak arte.

AUKERA

OINARRIAK

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA (euskaraz edo gazteleraz, 3 PDF-tan);

Taldeko kide bakoitzari buruzko dokumentazioa:

PDF 1: PROIEKTUAREN IZENBURUA_Dokumentazio pertsonala

- NANen kopiak
- Euskal Herrian jaiotakoak ez direnen errolda-ziurtagiriak gutxienerako urte beteko erresidentzia egiaztatzeko.
- Ikus-entzunezko edo zinemagintzako ikasketak burutu izanaren edo burutzen ari direnaren ziurtagiriak

Proiektuari buruzko dokumentazioa:

PDF 2: PROIEKTUAREN IZENBURUA_Dokumentazio anonimoa

- AUKERA programan parte hartzeko taldearen interes gutuna (orrialde 1 gehienez)
- Proiektuaren memoria (3 orrialde, gehienez)
- Mood Board eta proiektuaren ikus-erreferentziak (2 orrialde, gehienez)
- Sinopsia (400 karaktere, gehienez)
- Gidoia (12 orrialde, gehienez)
- Intereseko datu gehigarriak (orrialde 1)

PDF 3: PROIEKTUAREN IZENBURUA _Bestelako dokumentazioa

- Gidoiaren erregistroa Jabetza Intelektualaren Erregistroan
- Taldeko kide bakoitzaren C.V.a edo dokumentu biografiko laburra
- Proiektuaren eta taldeko 3 kideen aurkezpen-bideo baten esteka (gehienez 5 minutukoa) PDFan txertatua

Eskabideak egiteko modua:

Eskabidea egiteko **aukera@hemen.eus** helbidera mezu bat bidaliko da eskatutako dokumentazioaren 3 PDF-ak erantsiz.